

---



---

## JAUNGOIKOAREN BILLA

---



---

MIGEL UNAMUNO

Entzute andiko Bilbo'tar filosofo onek Jaungoikoari buruz onela itzegiten dau:

"Buruak ez, biotzak beartzen nau Jaungoikoagan sinistera.

Jaungoikoagan sinistea lenengo eta aurren Jaungoikoaren egarria, Jaungoikoaren bearra, nabaitzea da.

Jaungoiko barik ezin bete dan zulo edo utsune andi bat somatzea... Jaungoiko ba-dala nai izatea.

Nik emen neure barruan beti bizitzeko gogo bizi bat daukat... Gorputza iltzean ezereztu egiten ba'gara gizonaren bizitza fantasmen jira-bira goibel bat, besterik ez da".

ALBERTO ONAINDIA

Markinako abade ezagun onek berak idatzitako liburu batean gertakari polit au edesten dauku:

"Egazkin baten ninoan jesarrita liburua eskuetan neure abade otoitzak egiten.

Nire ondoan 22 urte inguruko gazte bat jesarri zan. Ipar-amerikarra zan.

Laster egin giñan lagun... Nire otoitz liburuari begiratzuz itandu eustan: "Zer da ori?"

Eta nik: "Otoitz egiteko liburua".

Eta berak: "Zer da otoitz egitea?"

Eta nik: Jaungoikoarekin berba egitea".

Eta gazteak arriturik: "Baiña zuk Jaungoikoarekin berba egiten dozu? Zelan da ori?"

Eta nik gazte jator aren burua argitu nairik esan neutsan: "Nik ez dot gorputzeko begiekaz Jaungoikoa ikusten, baiña bai fedearen bidez".

Eta gazteak: "Orain gitxiago ulertzen dot"...

Eta nik fedea edo sinismena zer dan onela erakutsi neutsan: "Begira, guk egazkin gain onetatik ikusten doguzan etxeak, bideak, zubiak eta abar... gizonak egiñak dira... Baiña itsasoa, eguzkia, mendiak eta abar gizonen eskuek ezin

dabez egin... Ara, gazte, gure egazkin onek orain istripu bat izango baleu, biar egunkarietan iru-lau lerro jarriko leukiez, esanez: egazkin istripu bat izan da, alako orduan eta alako lekuan, eta ainbeste il dira, eta kito... Gu ez gara ezer. Gizonaren txikitasunak, Jaungoikoaren anditasuna ezagutzera garoaz... Eta geiago be esango dautsut, zu arriturik itziko zaituena: Jaungoiko andi ori ain ona da, gugatik ume txiki bat egin zan...".

JAMES-BERSON IRWIN

1971-garren urten illargira joan zan lenengo gizonak, astronautak, au edesten dauku:

"Illargian igaro nebazan orduak nire bizitza guztiko oroigarrienak izan ziran, Jaungoikoa nire ondoan nabaitzen nebalako... Gizona, zenbat eta lurretik gorago, ainbat eta Jaungoikoagandik ondorago ikusten da. Illargian nengola Lurra-Ludia kanika baten antzeko txiki ikus-teak, biotz eragin andia egin eustan...

Gizona gorputzez txikia da, baiña espirituz oso andia...

Illargitik orain gu bizi garan Ludia ikusiz, pentsatu neban: ala ikusiko dau Jaungoikoak gu bizi garan Ludia, eta onek biotzean sentipen sakona emon eustan"...

Irwin astronautak beragaz aldean Biblia txiki bat eroan eban, eta Illargian egoala 120-garren salmoa irakurri eban: "Nire begiak mendi santuetara jasoten dodaz. Andik etorriko jat nik bear dodan laguntza".

Ludira, zorionez, jatsi zanean, Jaungoikoari eskerrak emon ondoren, au esan eban: "Ni Illargian egon naz, baiña Jaungoikoa gu bizi garan Ludian egon zan. Ni kristiñau naz, eta sinisten dot, orain 2.000 urte inguru Jesus Jaungoikoa Ludira etorri zala, eta orain be guri laguntza emoten gure ondoan daukagula".

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI